

# EUSKARA BATZORDEA

## 2011-12 ikasturterako plana

### 1. Eremu instituzionala:

Ikastetxea osatzen duten eragile guztiak: administrazio ezberdinak (Udala, Eusko Jaurlaritza...), familiak, langileak ( irakasleak, jantokiko langileak, garbitasuna egiten duten langileak, administraria, mantentze lanak egiten dituztenak...)

- Eskola komunitatea osatzen duten eragileen arteko harremanak euskaraz izan daitezten, behar diren baliabideak jartzea edo eskatzea.
- Etxeko hizkuntzan eragin dezaketen egitasmo ezberdinak bultzatzea eta dinamizatzea, jarduera ezberdinak antolatuz eta gauzatuz, Gelaburu eta klastroan informatuz eta hauekin lankidetzan arituz. Horretarako behar diren informazioa eta motibazioa landuz.
- GURE ARTEAN EUSKARAZ kanpaina antolatzea: Paula Kasaresen hitzaldi-solasaldia, Euskal jolas eta kantu tailerra, Ipuin tailerra, Mintzalagun programa.
- Ikastetxean jartzen diren txartel etab. euskaraz izan daitezten bermatzea. Halaber, jolas eremuan, aisialdian jartzen den musika, jolas, kantu etabarretan, euskarak presentzia nagusia izan dezan lan egitea.

### 2. Irakasleen eremua:

- Klastroa osatzen duten irakasleen euskara maila hobetzeko konpromisoa berrestea eta jarraipena egitea: ikastaroetara joatea ahalbideratuz, irakasleria animatuz...
- Euskara eta euskal kulturarekin zerikusia duten jardueretan parte hartzea, horretarako irakasleria motibatuz eta animatuz elkarlana bultzatuz.

### 3. Ikasleen eremua:

- Ikasleen euskara maila eta erabilera hobetze aldera, ekimen eta proiektu ezberdinak sortzea: ELKARREKIN IKASTEN DUGU...
- Ikasleen euskara maila eta erabilera hobetze aldera, ekimen ezberdinetan parte hartzea: BERTSOLARITZA, HALA BAZAN, NOLEGA, IDAZLEAK ESKOLARA, ESKOLATIK ANTZOKIRA, ESKOLA ETA ZINEA...
- Euskara eta euskal ohiturak ardatza duten eta herrian antolatzen diren jarduera eta festetan parte hartzea: KORRIKA, SANTA AGEDA, EUSKARAREN EGUNA, OLENTZERO...
- Ikasleek euskara maila hobetu dezaten, baliabide anitzak eta ezberdinak erabiltzea: Web orrialdeak, Cdak, GAZTETXO, BERRIA, KRONIKA...
- Ikasleek aisialdi uneetan euskal musika erabili dezaten lan egitea: adituekin bildumak aukeratuz...

### 4. ULIBARRI PROGRAMA: URTEKO PLANA ETA MEMORIA.

Ikasturtean zehar egin direnak baloratzea eta memoria batean jasotzea, hurrengo ikasturterako planaren abiapuntua izan dadin.